

Aisialdian zer nahiago? 05

Planak egitean, horien inguruan eztabaidatzean...
oso ohikoa da hipotesiak egitea.

GEROALDI HIPOTETIKOA

- Zer egingo genukeen adierazteko, **alegiatzko baldintzaren ondorioa** erabili ohi dugu:
Ni herri-kirolak ikustera joango nintzateke.
Zure lagunek ez lukete kontzerturen bat ikusi nahi?
- Alegiazko baldintzaren ondorioa** sortzeko, lehenaldiko aditzari **-(e)n** kentzen zaio eta **-ke** jartzen zaio bukaeran. Nor motakoek **-teke** hartzen dute.
- Singularreko eta pluraleko hirugarren pertsonen **“z” “t”** bilakatzen da.

NOR			NOR-NORI (Nor 3. pertsona: hura, haiek)			NOR-NORK (Nor 3. pertsona: hura, haiek)		
Nor	Lehen.	Ondorioa	Nori	Lehenaldia	Ondorioa	Nork	Lehen.	Ondorioa
ni	nintzen	nintzateke	niri	zitzaizkidan	litzaiizkidake	nik	nituen	nituzke
hi	hintzen	hintzateke	hiri	zitzaizkian/nan	litzaiizkiake/nake	hik	hituen	hituzke
hura	zen	litzateke	hari	zitzaizkion	litzaiizkiok	hark	zituen	lituzke
gu	ginen	ginateke	guri	zitzaizkigun	litzaiizkiguke	guk	genituen	genituzke
zu	zinen	zinateke	zuri	zitzaizkizun	litzaiizkizuke	zuk	zenituen	zenituzke
zuek	zineten	zinatekete	zuei	zitzaizkizuen	litzaiizkizueke	zuek	zenituen	zenituzkete
haiek	ziren	lirateke	haiei	zitzaizkien	litzaiizkieke	haiek	zituzten	lituzkete

26. Osatu esaldiak beheko aditz laguntzaileak erabiliz.

nituzke litzaiizkizuke ginategi litzaiieke litzateke zenituzke lituzke

- Nire lagunei sekula ez **litzaiieke** bururatuko horrelako jairik antolatzea.
- Aukerarik izango bagenu, asteburuero elkartuko _____ gazte-lokaletan.
- Nik oso gustura ikusiko _____ Mendi Film zinemaldiko emanaldi guztiak.
- Indiari buruzko hitzaldia emango bazenu, gazte guztiak hurbilduko _____ galderak egitera.
- Aizu, Naiara, hitzaldietarako kartelak egingo _____ ?
- Markos ez _____ inoiz surf-ohol baten gainean jarriko, itsasoak beldurtu egiten du-eta.
- Amaiak mahai gaineko pastel guztiak jango _____ ; txokolatea izugarri gustatzen zaio.

27. Osatu elkarrizketako aditzak, geroaldi hipotetikoak erabiliz.

- Aizu, Maddi, datorren astean zubia izango dugu. Zer egin dezakegu?
 –Bada, ni kostaldeko herriren batera joango (1) _____ ; Lekeitiora, esaterako.
 –Ez da ideia txarra, ez. Eta, zure lagunak animatuko (2) _____ ?
 –Bai, jakina! Ez (3) _____ inolako arazorik izango gurekin elkartzeko; gainera, Markelen amonak baserria du bertan, eta gu hara joateak izugarri poztuko (4) _____. Gaur bertan hasi beharko (5) _____ antolatzen: erosketak egin beharko (6) _____, amamarekin hitz egin...
 –Ni denboraz nahiko harrapatuta nabil. Zuek prest egongo (7) _____ erosketak egiteko?
 –Lagunekin hitz egin beharko (8) _____ lehenengo. Gero deituko diet, eta esango dizut.
 –Bikain! Gero arte, Aroa.
 –Agur, Maddi.